

Auritz (Kanaleburu)

N-135 errepidea, KP: 45,500



Gunearen deskribapena

Atsedenlekua Aurizko irteeran dago, Orreagako errepidearen eskuinaldean, eta oso atsegina da, batez ere egun beroetan, itzal handia baitu; gainera, inguruan ditu Orreagako multzo historiko-artistikoa eta Europako oihanik handiena den Iratiko oihana. Hurbil dago, halaber, Donejakue Bidea. Komunak, erretegiak eta bankudun hainbat mahai ditu. Eremuko landaredia tamaina handiko hainbat zuhaitzek osatzen dute. Zuhaitz horiek errepidetik bereizten dute. Gainerako eremua belardia da.